



## OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza  
Osasun Publikoaren eta Adikzioen  
Zuzendaritza

## DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud  
Dirección de Salud Pública  
y Adicciones

**Alerta, *Listeria monocytogenes* bakterioa hautemanda Espainiatik datorren txerri-buru egosiaren haragian (REF. ES2022/313)**

**Arriskua: *Listeria monocytogenes***

Alerta: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak alerta baten berri eman dio Elikagaien Segurtasunerako eta Nutriziorako Espainiako Agentziari (AESAN), Informazioa Azkar Trukatzeako Sistema Koordinatuaren (SCIRI) bidez, *Listeria monocytogenes* bakterioa hauteman da Espainiatik datorren txerri-buru egosiaren haragian. Alerta hori Elikagaien Segurtasun Mikrobiologikoko Programaren barruan detektatu zen.

**Eskura dugun informazioarekin EZ dago alertari lotutako kasu jakinarazirik.**

**Alerta horri dagokion produktua etxean duten pertsoneri produktua ez kontsumitzea gomendatzen zaie.**

Inplikaturako produktuaren datuak hauek dira:

- Izena: Txerri-buru berezia
- Marka: FRIAL
- Lotea: 2238402
- Iraungitze-data: 2022/12/14

Produktuaren irudia eranstean da:



Eskura dagoen informazioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan banaketa egon da, baina ez da bazterten beste autonomia-erkidego batzuetan ere banaketa egin izana.

Eskura dugun informazioarekin EZ dago alertari lotutako kasu jakinarazirik.

Informazioa autonomia-erkidegoetako agintari eskudunei helarazi zaie, Informazioa Azkar Trukatzeako Sistema Koordinatuaren (SCIRI) bidez, eragindako produktuak merkaturatze-kanaletatik kendu direla egiazta dezaten.

Zuhurtziazko neurri gisa, lehen adierazitako produktua etxean duten pertsoneri; produktua ez kontsumitzea eta salmenta-puntuetara itzultzea gomendatzen zaie.

Alertarekin lotutako loteetako produkturik kontsumituz gero eta listeriosiarekin bateragarria den sintomatologiarik balego (sukarra, buruko mina, gorakoak edo beherakoa), osasun-zentro batera joatea gomendatzen da.

Haurdun egonez gero, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren [Haurdunaldiaren Gidako](#) elikadura-atala kontsultatzea gomendatzen da, emakume haurdunentzat garrantzitsuak diren elikadura-higieneko praktikei dagokienez, baita arrisku biologiko jakin batzuekin lotuta egoteagatik haurdunaldian saihestu behar diren elikagaien zerrenda ere (horien artean Listeria monocytogenes nabarmentzen da).

Gogorarazi behar da oso garrantzitsua dela higiene-neurriak zorroztea, beste produktu batzuen [kutsadura gurutzatua](#) saihesteko.

Listeriosiari buruzko informazio gehiago, [esteka](#) honetan.